

Balorezko proposamena

Studify tresna tradizionalatik haratago doan **ikasleentzako aplikazio informatiko integral bat da**. Honek antolaketa aurreratua, lankidetzak eta ikaskuntza pertsonalizatua azken belaunaldiaren teknologiarekin konbinatuko du. Ikaslearen ahalik eta errendimendu akademiko handiena lortzeko.



Aplikazioak aukera ematen du zereginak, azterketak eta proiektuak **egutegi interaktibo** batean jartzeko eta adimen artifizialaren bidez kudeatzeko, erabiltzailearen lehentasunetara egokitzeko eta denbora optimizatzeko.



Adimen artifizialean oinarritutako **tutore birtual** baten laguntza du; zalantzak argitzeko, aholkuak emateko, testuak zuzentzeko, aurreko egutegian zereginak moldatzeko eta hainbat ekintza gehiago egiteko diseinaturia. Tutore horrek, erantzuteaz gain, baliabideak gomendatzen ditu eta ikaslearen aurrerapenera egokitzen du laguntza.

Gainera, **hezkuntza-albisteen feed pertsonalizatua** eskaintzen du. Honek jarduerari eta politikari buruzko informazioa emateaz gain, aukera ere ematen du dauden beste eskaintzak ezagutzeko, hala nola, bekak, ikastaroak edo ekitaldi garrantzitsuak.



Bestalde, **salerosketa gune** bat izango du, non aukera emango zaie ikasleei haien artean klaseko liburuak salerosteko. Liburuak lortzeko aukera emanez, liburuak saltzeko prozesua erraztuz eta etorkizuna jasangarriagoa bilakatuz (paper gutxiago erabili behar izango delako 2. eskuko liburuak erabiliz).

Guztia leku bakar batean edukita eta guztiz **dohainik** izanda, mota honetako beste aplikazioak ez bezala, ikasleek haien denbora optimizatu, modu eraginkorrean antolatu eta teknologia berritzaileaz lagunduta ikasteko aukera izan dezaten diseinaturia



dago gure aplikazioa. Gure app-ak antolatu ez ezik, hezkuntza-esperientzia eraldatu ere egiten du, ikaslea erabat pertsonalizatua eta berritzailea den plataforma baten erdian jartzean.



Merkatu azterketa egin ondoren, konturatu gara **zerbitzu antzekoak eskaintzen dituzten beste aplikazioak** badaudela. Baina **Sudify**-k aukera ematen du ikaslea laguntzeko dauden zerbitzu guztiak gune bakarrean aurkitzeko eta, gainera, beste aplikazioak ez bezala, dohainik. Zehazki hori izango da gure lehiakideengandik aldentzeko eta bezeroak lortzeko arrazoia.

Beste aplikazioen adibideak (lehiakideak): Notion, todoist, Timecamp, Google Calendar, Evernote, Trello, academia.edu, Mystudylife.

